

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

31/2018 Mozioa, maiatzaren 9koa, Arabako basurdeen egoerari eta problematikari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko maiatzaren 9an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

31/2018 Mozioa, maiatzaren 9koa, Arabako basurdeen egoerari eta problematikari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egin dezala azterlan bat aztertuko duena lurraldeko ehiza nagusiko espezieen egoera eta basurdearekin gertatzen ari den egoera -eta bestelako egoerak-, bai eta populazioak orekatzeko gomendioak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sortu dezala lan-mahai bat, parte hartzeko prest dauden eragileekin, Ingurumen eta Hirigintza, Nekazaritza, Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna, Ekonomiaren Garapen eta Lurralde Oreka sailak barne direla, hainbat ikuspuntutatik aztertu dezaten basurdeek sortutako problematika kontuan izanik aipaturiko azterlan zientifikoan emandako gomendioak.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, aipaturiko lan-mahaiaren ondorioak oinarri hartuta, baloratu dezala basurdeak kudeatzeko plan bat abian jartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 9a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA